

Bai Euskarari akordioa Sinatze ekitaldia Miarritzen

Yves Matxikote • Gazteriak



«Elebitasuna gazte guneetara zabalduko dugu»

► «Kanpoan, gazteak ibiltzen diren lekue-
tan elebitasuna eza-
rri nahi dugu. Gazteei erakutsi
nahi diegu, praktikan, euskarak
garrantzia baduela. Euskarari bu-
ruzko lan hori gure kanpaina be-
rrian kokatu dugu. Euskal He-
rriari Euskaraz-ekin ere landuko
dugu. Ez dugu igurikatuko nor-
baitek ezar dezan elebitasuna:
guk eginen dugu».

Anne Marie Chancerel •



Radio-France Pays
Basque

«Ideala euskaraz frekuentzia baten sortzea litzateke»

► «Radio Francek bo-
rondatea badu, Jean-Marie Cava-
da lehendakariak azaldu zuen be-
zala. Orain arte, egunero oren bat
egiten dugu euskaraz. Ideala eus-
karazko frekuentzia baten sortzea
litzateke. Baina epeen aldetik
deus ez dugu zehaztu. Parisek ga-
ratzeko erabakia har dezan iguri-
katzen dugu».

Colette Larraburu • Errobiko
Festibala



«Orain arteko lana berresten dugu»

► «Errobiko Festiba-
lak bere dokumen-
tuak hastapenetik
osoki elebidun ateratzen ditu. En-
gaiaimenduak berak geldituko di-
ra, duela bost urte sortu zenetik.
Bai Euskarari akordioaren izen-
petzea orain arte egiten den lana-
ren berrestea da, guretzat bede-
ren. Egia da izenpetzaile berriak
ere agertu direla gaurko ekitaldi-
ra, eta hori azpimarratzekoa da».

Itziar Mendibil • Orai Bat taldea



«Dantza euskaraz ere irakatsiko dugu»

► «Dantza kurtsoak
bi hizkuntzetan es-
kaintzea ona litzate-
ke. Horrek haurrei anitz ekar lie-
zaieke. Urte hondarreko euska-
razko ikastaroak abiatu behar
genituzke, euskara dakiten dan-
tzari batzuen eskutik. Kultura
gertakarietan ere parte hartu nahi
dugu. Laz, esaterako, dantzari guz-
tiek parte hartu nahi izan zuten
Agilerako ekitaldian».

Tennis-Club Anglet-Olympique
Union Sportive Baigorri
Union Sportive de Garazi
Ur Joko
Xogori

Kultura (21)

Itsasmendi
Abadiako Adixkideak
Atalante
Begiraleak
Bertsularien Lagunak
Centre Musicaux Ruraux (CMR 64)
Errobiko Kaskarotak
Euskal artistak elkarteak
Euskal Dantzarien Biltzarra
Garazikus
Izturitze eta Otxozelaiako Harpeak
Herri soinuariak
Frantziako Gazte Musikariak -
Hendaia
Frantziako Gazte Musikariak -

Miarraitze
Kixka Antzerkia
Baxe Nafarroako erakustokia
Oinarria antzerki taldea
Orai Bat
Euskal Erakustokiaren Lagunak
Sü Azia
Théâtre des Chimères

Laborantza, arrantza (12)

A.F.O.G elkarteak
Arrapitz Federazioa
Itsas Geroa elkarteak
Garaziko Batzorde Sindikala
Baigorriko Batzorde Sindikala
CLPB
ELB
FDSEA Pays Basque
Fédération Française des Pêcheurs
en Mer
GFAM-Lurra
Itsas Gazteria

Donibane Lohizune-Ziburuko CGTko
arrantzaleak

Lan mundua (16)

Accea Lan Berri
CFDT Pays Basque
CGT-Bayonne
CLEFE Enborra
Ostalaritza Industriako
Departamendu Federazioa -
Ostalaritza Industriako Lanbideen
Batasuna
Garapen Kontseilua
Hemen
Herrikoa
Jeune Chambre Economique
Ofizialeak
Olaberria Moldegintza
Station Littorale Hendayaise
SUD PTT 64
Donibane-Lohizune eta Larrun
eskualdeko Ostalarien sindikatua

Amikuzeko Merkatarien eta
Artisauen Batasuna
CGT Maule-Zuberoa

Zerbitzuak (19)

2C
ARCA Banque du Pays Basque
Bai (SARL)
Bonafons Pierre
Comedia
Credit Maritime d'Aquitaine
Giraudy
Pirinio Atlantikoetako Groupama
Haritza
Imprimerie Arizmendi inprimategia
Intercars international France
Kutxa France
Le petit basque
Maeva pub
MAIFen Baionako ordezkaria
MCD Mutuala
ORPI Cote Basque Immo

Ostoa publizitatea
STAB : Baionako Aglomerazioko
Garraio Sozietatea

Saltegiak (18)

Aurique EURL (Donibane-
Lohizuneko Mc Donalds)
BUT SA (Pontots Meubles Menager
Bayonne)
Centre E. Leclerc Pays Basque
Distribution
Centre Leclerc Baiona Iparra
Conforama Angelu
Daverat SA
Elkarlanean
La Cave Gaillacoise
Lur Berri
Matten denda
Angelu Pobeca-SA (Mc Donald's)
S.A. Sodix Intermarche Sohuta
S.C.A. Vignerons du Pays Basque
SA LASSAB Intermarche Aiziritze

SARL Andrieu
Ste Atlantica
Champion supermerkatua
Weldom Donibane Lohizune (SARL
Nivelle Bricolage)

Osasuna, laguntzarako elkartek (14)

AFM
AIDES Aturri eskualdea
Amicale des Trois Valloes
Kanboko Chaîne Thermale du Soleil
Paulmy kardiologia klinika
Paulmy kirurgia klinika
Delay klinika
Lafargue klinika
Lafourcade klinika
Sokorri klinika
St Etienne klinika
Mauleko Mission locale
Cote Basque sud poliklinika
D'Aguilera poliklinika

Sauveur Urrutiagerre • FDSEAko ARDURADUNA •

«Bilkuretara euskara sartzen ahaileginduko gara»

FDSEA laborari sindikatua-
ren Euskal Herriko adarra
ere juntatu zitzairen akordio-
aren izenpetzaileei. Sauveur
Urrutiagarrek izenpetu zuen
akordioa. Engaiamenduak
sindikatuaren barne ibilmol-
deari buruz hartu dituzte,
gehienbat.

■ FDSEA zertan engaiatu- ko da?

Euskara pixka bat maiza-
go erabiltzera engaiatzen
ahaileginduko gara. Bilkura
guztiak frantsesez egiten
ditugu. Gure administrazio
kontseiluan badira euskara
ulertzen ez duten kideak.
Baina, emeki-emeki, euska-
ra pixka baten ekartzen
saiauko gara. Garen toki
guztietan eginen dugu indar
hori. Baigorri eta Garaziko
kantonamenduetako bilku-
retan, euskaldunak anitz

■ ■ ■ *Gauden toki
guztietan emeki-
emeki euskara
pixka baten
ekartzen saiatuko
gara»*

baitira, euskara erabiliko
dugu. Leku erdaldunagoe-
tan euskarari buruz sentsi-
bilizatu nahi genuke.

■ **Baina bilkuretako ibil-
moldearen eta aldatzeari
buruzko engaiamendua
bete daiteke? Printzi-
pio batzuk erabaki dai-
tezke akordio baten
izenpetzean, baina prin-
zipio horiek airean geldo
daitezke eta akordioa
ahantzi. Ohiturak alda
daitezke akordio bat**

izenpetuz?


Ez da erraza. Guztiok
ohartzen gara zailtasunaz.
Baina holako akordio bat
izenpetzen badugu, martxan
ezartzeko indarraren egiten
saiauko gara.

■ Engaiamendu konkretu edo neurgarriago batzuk hartuko ote dituzue ?

Aldizkari bat badugu.
Mementoan nehork ez du
euskaraz idazten, nehork ez
baitu ohitura hori. Baina
indar bat egiten ahal-
ko dugu. Zenbait eskualdetako
zenbait laborarik artikulu
batzuk euskaraz idaztea
eskatzen digute. Gure
engaiamenduaren keinu
azkarra izanen da hori.

■ Gaurko egunak baikor ezartzen zaitu?

Iduri du euskararen alde
indar gehiago egin eta, aldi
berean, euskara gutiago era-



BOB EDMÉ

biltzen dela. Gure inguruan,
belaunaldi batetik bertera
euskaraz mintzatzen ziren.
Aski da noibat euskaraz
mintzo ez den edo gutxi min-
tzo den batekin ezkon dadin
hizkuntzaren transmisioa
mozteko. Haurrek ulertzen
dute, baina ez dira mintza-
tzen. Lan luzea izanen da
berreskuratzea.

■ Lan luzea, baina belau-

naldiak aldatzen dira eta ez da denborarik galdu behar.

Dudarik gabe. Gainera,
haurrek hastapenean eus-
karaz zerbitzu baldin badaki-
te ere, eskolan ia guztia gal-
tzen dute. Eskoletan bi hiz-
kuntza irakatsi behar dira
aldi berean. Horrela lor
dezakegu euskararen man-
tentzea.